

Transkripzioa irakurri erantzunak konprobatzeko.

Nola prestatzen da tomate-entsalada?

Etxeko lagunak sukaldean daude eta zer afaldu behar duten erabaki behar dute.

Transkripzioa

AMAIA.- Tira, lagunok, afaltzeko garaia da. Alex, June, mahaia jarriko duzue, mesedez?

JOSU.- Eta bitartean Amaiak eta nik tomate-entsalada eder bat prestatuko dugu.

JUNE.- Tomate heldu horiekin? Puf! Pasatuta daude.

JOSU.- Aizu, June, asko kostatu zaigu tomate onak topatzea. Eta ez daude pasatuta, puntu-puntu daude.

ALEX.- Lasai, June, mahaia jarriko dugu eta haiek moldatuko dira entsaladarekin.

AMAIA.- Bai, eta gero gazta intxaurrekin eta kafea. Ados?

JUNE.- Ados.

JOSU.- Bueno ba, orduan, lanera!

AMAIA.- Nola prestatuko dugu tomate-entsalada?

ALEX.- Bueno, bueno, hori oso erraza da. Zein da ba arazoa?

AMAIA.- Alex, erraza bada, zuk prestatu!

JOSU.- Lasai, aurrena tomatea zurituko dugu.

JUNE.- Zuritu, zertarako, bitamina guztiak azalean ditu.

AMAIA.- Ederki hasi gara!

ALEX.- Junek arrazoi du. Tomatea ondo garbitu, zatitu, jarri baratxuri pixka bat, eta kito.

JUNE.- Mila esker, Alex, baina niri ez zait baratxuria gustatzen.

JOSU.- Ondo da, ez dugu jarriko; tipula eta txatka, eta kito. Ados?

AMAIA.- Ni ados, zuek?

ALEX.- Bai, bai, ados. Baina nola moztuko duzu, goitik behera edo zeharka? Onera zeharka moztea da.

AMAIA.- Ba begira, jada hasi naiz eta goitik behera ari naiz egiten!

JUNE.- Bueno, bueno, ez da ezer gertatzen; ez gara haserretuko entsalada ziztrin batengatik, ezta?

JOSU.- Ezta pentsatu ere!

AMAIA.- A, beste gauza bat. Aiztoa eskuinean jarri behar da, eta sardexka ezkerretara. Eta alderantziz jarri duzue.

JOSU.- Ai!